

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROA	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

## 3. HE: AHOZKO JARDUNEAN HOBETZEKO IKASTAROA

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Martxoak 1,3,8,10,15,17 Apirilak 5,7,12,14,19,21,26 Maiatzak 3,5,10,12,17,19,24	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	<b>28. gela</b> , IVAP Eusko Jaurlaritz Donostia-San Sebastian kalea, 1 Vitoria-Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	40 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	08:00-10:00
<b>MATRIKULA EPEA</b>	Otsailaren 15era arte	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Otsailaren 22ra arte
<b>IKASLE KOPURUA</b>	15 gehienez ere	<b>HARTZAILEAK</b>	EAEko Herri Administrazioetako langileak. 3. HE egiaztatuta izatea eta HE horretatik gertuko euskara-maila izatea.
<b>IRAKASLEA ETA DISEINUA</b>	AEK	<b>AZPIEGITURA</b>	Ordenagailua eta arbela

### ZER LORTU NAHI DA

#### HELBURU OROKORRAK

Langileek hizkuntza ez erabiltzeagatik galdu duten ahozko jarioetasuna berreskuratzea, langileak motibatzea euskara lanean ahoz erabiltzeko eta euskara erabiltzeko beldurrak kentzen laguntzea.

**Oharra:** Ikastaro hau ez da 4 HE prestatzeko.

#### HELBURU ZEHATZAK

Laguntza eskaintzea hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko eguneroko jardueran.

Lanarekin zerikusia daukaten bilerak, bisitaldiak eta antzekoak euskaraz egitea. (3.HE dutenentzat).

Ahozko erregistroaren berezko ezaugarriez eta baliabideez jabetzea Mintzamenean errepikatzen diren akatsak zuzentzea

Lan arloko hiztegia lantzea.

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

#### METODOLOGIA

Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan zehar, nahiz eta alde praktikoak lehentasuna izango duen.

#### IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

- Ahozko jarioetasuna lantzeko ikastaroak aurrez aurrekoak izango dira.
- Ikastaro horiek lanorduen barruan izango dira, baina ordu-kredituen sistematik kanpo egongo dira, oraingoz behintzat.
- Ikastarootan ez da eduki berririk ikasiko (hori ohiko ikastaroetan egiten da).
- Ahozko jarioetasuna lantzeko ikastaroan bi osagai hartuko dira kontuan:  
Osagai espezifikoak: laneko egoera eta eginbehar arruntak  
Osagai orokorra: hizkera formala



HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROAK	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

### 3. HE: AHOZKO JARDUNEAN HOBETZEKO IKASTAROA

#### PROGRAMA

##### Ahoskera:

- Arauak azaldu
- Ahots gorako irakurraldiak

##### Telefonoz lanean

- Kunplimenduak
- Elkarrizketak informazioa eskatu/emateko
- Esaldirik erabilienak
- Saileko programa baten azalpena eman, ereduak entzunda
- Lexiko teknikoa egoki erabiltzeko estrategiak
- Lexikoa ezberdindu erregistroaren arabera

##### Egokitasuna

- Lagunarteko erregistrotik jasora
- Erregistro jasoa

##### Argitasuna

- Azalpen argiak emateko baliabideak

##### Zuzentasuna

- Ahozko jardunetan egindako erroreen gainean espresuki sortutako ariketak, edo emandako azalpenak

##### Jariotasuna:

- Landutako zenbait baliabidek bereziki eragiten diote hizkuntzaren jariotasunari, horiek erabiliz irabazten baitu ziurtasunean eta bizitasunean, eta horren ondorioz, jarioan.

#### EBALUAKETA

Proba bat egongo da ikastaroaren amaieran eta gainditu egin behar da GAI kalifikazioa lortu ahal izateko.

#### IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

#### ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

- %80ko bertaratzea eta aprobetxamendu proba gainditzea

#### PREZIOA

**329 €**

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.  
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.